




> Everest, turistentzat hurbilago



NAIZ+

Everesteko gailurra zapaltzea ez da gauza erraza. Gaur egun, bertako sarrerako atea mendi artean kokatutako Tenzing-Hillary aireportua da, munduko arriskutsuenetakoa. Lukla hirian, 2.860 metroko altueran,



abiatzen da astebete inguruko ibilbidea Everesteko kanpamentu nagusiraino, eta Nepalgo Gobernuak bertarainoko errepide bat egin nahi du.

2.100 metroko altueran dagoen Khari Kholaraino iristen

da oraingo errepidea, eta Gobernuaren nahia Chaurikhar-karaino luzatzea da, Luklatik hiru bat kilometrora. 2020ko uztailan amaituta egotea aurreikusten dute. Bi autobus geltoki izanen dira Khari Kholan, eta bertatik ibilgailu elektrikoak soilik pasatuko dira.

Ohikoa da Tenzing-Hillary aireportuan hegaldiak atzeratu edo bertan behera geratzea, eguraldia txarra tarteko. Bertara heltzeko 25 minutuko hegaldiak 180 euroko prezioa izan ohi du. «Turistek eta Nepalgoek bertakoek bitan pentsatzen dute Everesteko eskualdera bidaiatu aurretik», adierazi du Gobernuak.

Era berean, Chaurikharkan teleferiko bat eraikiko dute, 3.440 metroko altueran dagoen Namche Bazaarera igotzeko. Bertan bizi dira xerpa edo mendi gidari gehienak.

Gobernuaren hitzetan, iaz 56.303 atzerritar gerturatu ziren eskualdera, eta, errepidearekin, 500.000 izatea dute jomuga. Nepalen gehiegizko turismoaren aurkako ahotsak ere hasi dira indar hartzen.



> Donostiako arratoiek ez dituzte siglak bereizten

Donostiako Udalak badu telefono bat herritarrek arratoiak ikusten dituztenean informatzatzen, neurri espezifikoak hartzeko. Iaz 916 abisu egin zituzten, esate baterako 2014ko-aren bikoitza, orduan 528 izan baitziren. Uste izatekoa denez, kaleetan arratoi gehiago ikusten direlako daude jakinarazpen gehiago.



Datu horrek txikikeria dirudi, baina badu nabarmentzekorik. Duela bost urte EH Bilduren legegintzaldiko azken urtea zen, eta ustez arratoiak kontrolik gabe ugaltu izana izan zen oposizioak Juan Karlos Izagirreraren taldearen aurka egiteko baliatutako gaietako bat. Arratoiek, antza, ez dituzte alderdien siglak bereizten.



> Txernobyngo haurrak, Euskal Herritik etxera bueltan

Euskal Herrian uda eman duten 189 haur ukrainarrak joan den astean itzuli ziren etxera. Chernobil Elkartearen harrera programak 1986ko ezta-ndak kutsatutako inguruan bizi diren adin txikiko horien osasunak hobera egiten laguntzea du helburu, eta harrera fami- liei esker funtzionatzen du.

Elkartea 1996an sortu zen, eta urtebete geroago lehen ha- rrera programa antolatu zuen,

haur horiek zenbait hilabete inguru osasungarriago batean eman eta, horretara, beren osasunak hobera egin zezan.

Aurten, ia 200 adingabe eto- rri ziren Euskal Herrira uztail hasieran. Bi hilabeteon balan- tzea oso ona da eta jarduera ugari egin dituzte. Programa hasi zenetik, haurren osasun egoeraren hobekuntza nabar- mena izan dela nabarmendu dute antolatzaileek.



> «Bostak» sailaren egileari betoa

Sarah Vine zutabegile britai- niarrak “The Daily Mail” kaze- tan jakinarazi duenez, Royal Mint entitateak, txanponak eta billeteak egiten dituenak, 50 zentimoko txanponetan Enyd Blytonen aurpegia ager- tzea baztertu zuen 2016an. Horrela, bertan behera utzi zuen idazle haren heriotzaren 50. urteurrenean egiteko asmo zuen aintzatespena.

Blyton, XIX. mendearen amaieran Londresen jaioa, idazle emankorra izan zen.



Haur eta gazte literaturako 750 obratik gora sinatu zituen, bai bere ezkondu izenarekin, bai Mary Pollock ezkongabe izenarekin. Haren sailik nabar- menena “Bostak” izan zen.

Hala ere, arrazista, xenofor- boa eta sexista izatea leporatu zioten, arraza beltzeko pertso- naiei, atzeritarrei edo neskati- lei bere lanetan emandako tra- taeragatik. Hori dela eta, Royal Mint entitateak Blyton omen- tzeari uko egin zion, Sarah Vi- nek adierazi duenez.



> EHUKo eserleku bakarreko auto bat, onenen artean

Formula Student Bizkaia tal- dearen eserleku bakarreko ibilgailuak motor elektriko- en sailkapen orokorreko bedera- tzigarren postua lortu du Montmeloko (Bartzelona) zir- kuituan egin zen lasterketan, Bilboko Ingeniaritza Eskolak jakinarazi duenez.

Ingeniaritza Eskolako 54 ikaslek eta lau irakaslek osa-

tzen dute Formula Student Bizkaia taldea, eta eurek pres- tatutako autoak EHU ordezka- tzen du txapelketetan. Aurten- goa denboraldi bikaina izan dute, Silverstoneko (Britainia Handia) eta Montmeloko las- terketetan hamargarren eta bederatzigarren postuetan sailkatu baitira hurrenez hu- rren.

